



MARISOL RAMIREZ / FOKU

Olatz Silva Rodrigo

BILBO—Behin argazki batzuk aterata, Elixabete Etxanobe Landa-juela Bizkaiko ahalzun nagusiak (Otxandio, Bizkaia, 1978) nahia-go du gortinak igo, 125 urte bete dituen Foru Jauregian egunaren lehenengo eguzki izpiak sar dai-tezen. Etxanobek agintaldi erdia bete berri du jauregi horretan ahalzun nagusi gisa. Aitortu du denbora oso arin pasatzen dela, baina hasieratik «oso zentratuta» daudela egin beharrekoetan. Go-bernuan dauden EAJ eta PSE-EE alderdien harremanaren balorazio «oso positiboa» egin du, eta adierazi du *Santos Cerdan au-ziarekin* lotutako ekintzek «naz-katu» egiten dutela. Urdaibaiko Guggenheim museoaren proiektuaz ez ezik, lan eskaintza publi-koetako euskara eskakizunen, Batuz sistemaren eta migratzaile adingabentzako harreraren in-guruan ere mintzatu da, besteak beste.

Unai Rementeria itzal luzeko ahalzun nagusiaren ostean hartu zenuen lekukoa. Esango

zenuke zure nortasuna ipintzea lortu duzula?

Hau jarraikako lan bat da. Lurralde hau den lurralde oparoa iza-tera heltzeko, aurretik asko egon dira lan hori egin dutenak. Egia da bakoitzak bere azterna uzten duela, eta guk zehaztu dugu zein-tzuk diren gure gidalerroak. Bat aipatzearen, lurralde kohesioa nabarmenduko nuke. Gura dugu Bizkaiko edozein lekutan bizi zarela ere bizi kalitate ona edu-kitzea. Horrek inplikatzeko du zer-bitzu publiko egokiak edukitzea Bizkaia guztian, garraio publikoa, azpiegiturak, baita zerbitzu sozia-len banaketa egokia ere.

Santos Cerdanen auziak har-rabotsa piztu du azkenaldian. Zer-nolako eragina dute horre-lako auziek politikan?

Larriak dira auzipean dauden kon-tuak. Nazkatu egiten naute horre-lako ekintzek. Kalte handia egiten digute politikan bokazioz eta maite dugulako gaudenoi, jendeak pen-tsa dezake eta denok berdin jokatzen dugula, eta ezta antzekorik ere. Neurri irmoak eta zorrotzak hartu behar dira. Ez estetika-koak bakarrik, benetako neurriak.

PSE-EEekin lotutako auziak ere agertu dira. Zer moduz dau-de EAJren eta alderdi sozialista-ren arteko harremanak?

Gobernu kontseilu honen par-te garenok, alderdi batekoak zein bestekoak izan, zentratuta gaude gure betebeharraren eta bizkaitarrekin hartu dugun kon-promisoan. Hemen dugun harre-manaren balorazio oso positiboa egiten dut.

Zergatik erabaki du aldundiak lan eskaintza publiko batzue-tako euskara eskakizunak murriztea?

Guk badaukagu gure lanpostu zerrendetan derrigortasun data duen zenbateko bat, %82 inguru. Hori ez da murriztu. Sententzia batzuk eman dira, eta epaitegiek irizpide batzuk ezarri dituzte. Hautaketa prozesu horietan dau-den hautesleak prozesua etenda gera ez daitezen, zera egin da: hizkuntza eskakizuna derrigorta-sun moduan eskatu ordez, meritu bezala eskatu. Horrek ez du esan nahi profilari dagokion plangin-tza data iraungitzen denean plaza hartu duen pertsona horrek da-gokion profila akreditatu behar

ez duenik. Derrigortasun profilak ez dira gutxitu: preskribatze data atzeratu da.

Sindikatu batzuek aipatu izan dutenez, orain arte botere ju-dizialak egin du administrazio publikoak euskararen alde bul-tzatutako neurrien aurka, baina oraingoan administrazioak egin du atzera.

Sententziek markatu dute juris-prudentzia bat. Guk ezin dugu hautaketa prozesu batzuekin aurrera egin jakinda bat-batean behin-behineko neurri bat irits daitekeela eta prozesua bertan behera gera daitekeela. Inork ezin du esan neurriak hiritarron hizkuntza eskubideak urratzen dituenik, ezta langileenak ere. Horrez gain, ezin da inola ere za-lantzan jarri aldundiak herritarrei euskaraz arreta emateko daukan konpromisoa. Baina hautaketa prozesuetan dauden eskubi-deak ere bermatu behar ditugu.

Hizkuntza eskakizunen kon-trako epaiei bidea eragozteko, lege erreformak egiteko propo-samenak eraman dituzte EAJk eta EH Bilduk Eusko Legebiltza-rrean. EH Bilduk proposatu du

lanpostu publiko guztietarako nahitaezko hizkuntza eskakizun orokorra izatea euskara.

Hemen badaude adin bat duten pertsonak, aspaldi administra-ziora sartu zirenak eta euskaraz ez dakitenak. Saiatu behar dugu daukagun errealtaterara molda-tzen legedia. Niretzat garrantzi-sua ez da funtzio publikora sartzeko derrigor euskaraz jakin behar izatea, baizik eta adminis-trazioak euskarazko arreta ber-matzea.

EAJren xedea euskara eskakizu-nak eskatzeko derrigortasun in-dizea ezabatzea da. Segurtasun juridikoaren ikuspegitik, uste duzu planteamendu sendo bat dela?

EAJk egiten duen planteamendua da administrazio publiko bakoitzak bere errealtatearen arabera bere derrigorrezko profil kopurua zehaztea. Horrek gaitasuna ema-ten dio administrazio bakoitzari bere eremura eta bertako erre-alitate soziolinguistikora egokitze-ko. Hori positiboa da, eta ez du esan gura administrazioak nahi duena egingo duenik. Justifikatu egin beharko du zergatik eta zen-

«Guggenheimeko entzute prozesua ez dugu hasi bertan esaten dena aintzat ez hartzeko»

ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Bizkaiko ahaldun nagusia

Etxanobek adierazi du ez dagoela presarik Urdaibaiko museoaren proiektua egiteko. Haren hitzetan, «ahots ezberdinak» entzun beharra dago: «Ea denon artean definitzen dugun Busturialdearentzat zer nahi dugun».

bat postu jarriko dituen derrigorrezko profilagaz.

Hizkuntza eskakizunez harago, euskaraz lan egiteko zer bide egiten ari da erakundea?

Egitasmo pila bat ditugu. Euskara era positiboan eta inklusiboan sustatu behar dugu. Orain erronka kalean daukagu, eta horregatik egin ditugu hainbat kanpaina, euskara eremu profesionalean erabiltzeko, baita aisialdian, kirolean eta gainerakoetan ere. Hori da hizkuntza iraunaraziko duen gauza bakarra.

Hainbat esperientziak frogatzen dute autoari erraztasunak emateak trafikoa areagotzea dakarrela. Larrialdi klimatikoak autoen trafikoa murriztea eskatzen duen garai honetan, itsasadar azpiko autobide bat egitea ez al doa kontrako bidean?

Pandemia pasatu zenetik hona, desplazamenduak ikaragarri ugartu dira. Datuek esaten digutena da ekonomia zenbat eta oparagoa izan mugikortasuna areagotu egingo dela. Horrek ez du esan nahi guk garraio publikoa sustatzen ez dugunik. Urtero gure aurrekontuen berrehun milioi euro



«[Santos Cerdanen auziarekin lotutako ekintzek] Kalte handia egiten digute politikan maite dugulako gaudenoi»

«Garrantzitsua ez da funtzio publikora sartzeko derrigor euskaraz jakitea, baizik eta euskarazko arreta bermatzea»

«Etorkizunean nagusi izango diren pertsona horien integrazioa gura badugu, egoki artatuak izan daitezen behar dugu»

inguru bideratzen ditugu Bizkaibus eta metroa finantzatzera.

Ibai azpiko tunelaren zergatia beste bat da. Arazo bat daukagu Arrontegin. 11 kilometroko erradioan, ez dago beste alternatibarik Arrontegitik pasatzea baino. Gobernu honek erabaki du egunero bertatik igarotzen diren 200.000 gidariei behin betiko soluzio bat ematea. Proiektu hau ez doa garraio publikoaren erabilera sustatzearen kontra, ezta autoa sustatzeko neurri moduan ere. Gainera, itsas azpiko tunel hori garraio publikoak ere erabiliko du. Argumentu bat eta bestea ez ditugu erlazionatu behar.

Urdaibaiko Guggenheim proiektuari buruz, entzute prozesu bat abian da Busturialdean, baina ez da loteslea izango. Ez al zazu kritika zilegia iruditzen pentsatzea erakundeak zuritzeko egiten dituzuela entzuketa prozesuak?

Ez diogu izaera loteslerik eman, baina guk ez dugu prozesu bat hasiko bertan esaten dena aintzat ez hartzeko. Badago jendea proiektu hau ontzat jotzen ez duena, badago ontzat jotzen ez

duena baina zerbait egin behar dela uste duena, eta badago alde dagoen jendea. Gobernu honek ez zeukan zertan entzute prozesu hori egin. Uste dut erantzukizunezko jarrera bat hartu dugula, eta zintzotasunez egindako plan teamendu bat dela.

Argi dudana da eskualde horrek, Guggenheimez gain, proiektuak eskatzen dituela. Horregatik abiatu dugu Busturialdeko plan estrategikoa. Espero dugu uztaillean proiektuak balidatzea, eta datorren urteko aurrekontuan lehenengo diru erreserbak egitea. **Ez da loteslea izango, baina gehiengo zabal batek museoaren kontrako jarrera agertzen badu, nola jokatu du aldundiak?**

Agirre Lehendakaria Centerrek mila bat elkarrizketa egin nahi ditu, eta momentuz hirurehun egin dituzte. Itxaron egin behar dugu. Orain arte, Guggenheimi lotutako ekintzak ingurugiroa berreskuratzeko ekintzak izan dira. Lurrak garbitu ditugu; hortik harago ez dugu beste ezer egin. Uste dut inork ezin duela egindakoaren inguruan inongo trabarik jarri. Ez daukagu presarik hau egiteko. Ez da denbora txikian definitzeko prozesu bat. Eskatzen du denon artean ikustea zeintzuk diren zona horretako ahots ezberdinak, ea denon artean definitzen dugun Busturialdearentzat zer nahi dugun.

Espainiako Gobernuak Kanarietara ailegatzen diren migratzaile adingabeak nola banatu zehaztu du. Bizkaira ez da bat ere iritsiko.

Bizkaira eta Euskadira ez da bat ere iritsiko. Horrek egiaztatzen du aspalditik egiten gabiltzan ahal dugunaren gainetiko esfortzua. Gauden egoeran, nahi izanda ere, ezingo genuke besterik egin. Joan den azarotik salbuespeneko egoeran gaude. Ez da baliabide ekonomikoen kontua bakarrik. Egoki trebatutako langileak behar ditugu, umeei ematen diegun arreta sozioedukatibo eta plan formatiboa emateko. Instalazioak behar ditugu. Alde horretatik, lurralde honen gaitasunak ahalmenetik kanpo daude.

Gaur egungo baliabideekin, bakarrik datozen adingabeek harrera duin bat bermatuta daukate Bizkaian?

Guztiz. Egoera tentsionatu batean gaude aspalditik. Eskaini nahi diegun proiektu sozioedukatibo honetarako, nahiko genuke bolumen txikiagoa izatea. Arreta ez da bakarrik lo egitea eta janaria; askoz gehiago da. Etorkizunean nagusi izango diren pertsona horien integrazioa gura badugu, egoki artatuak izan daitezen behar dugu, hezkuntza bat jaso dezaten edo gure herriak zelan funtziona-

tzen duen uler dezaten. Kalitatez eta egoki egin ahal izateko zenbatekoak asko esan nahi du.

Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak Arartekora jo zuen iaz; familia erreferenterik gabeko atzeritarren lehen harrerako zentroetako langileei jarraibideak bidali omen zizkieten 17 urte eta erdiko nerabeei esateko une horretatik aurrera ezin izango zietela ezer tramitatu.

Ez daukat horren berririk. Aldundi moduan, egin behar duguna da hona heltzen direnei euren proiektu sozioedukatiboa bermatu eta, noski, euren eskubideak bermatu. Hori da guk egiten duguna.

Hilabete honetan gehitu dira ostalari eta merkatari txikiak Batuz sistemara. Jaso duzue iritzi edo kexarik?

Aldundi honek daukan desioa da herritarrengandik hurbil egotea. Batuz sistema ezartzerako, kolektibo guztiekin bildu da Ogasun Saila. Denekin saiatu gara euren gaitasunak eta tamaina kontuan hartzen, egutegi bat jartzen eta erraztasunak ematen. Batuz sistemaren helburua da iruzurrari mugak jartzea. Uste dut helburu horrekin bat gatzela gizartearen gehiengo.

Datorren urtean txosnek egin beharko dute bat. Salatu izan dute «urak gainezka egiteko beste tanta bat» izango dela, jada «itolarrian» daudelako. Zuek erantzun duzue txosnek bat egin beharko dutela Batuz sistemarekin, baina prest zaudetela berriro haiekin biltzeko eta haien argudioak entzuteko. Elkartu zarete?

Duela gutxi bilera bat izan dute Ogasun Sailarekin. Gure helburua da haien bidelagun izatea. Modua topatu behar dugu haien eredua sostengagarri izateko, eta denok egiten dugun moduan, betebeharrak betetzeko. Ahal dugun dena emango zaie helburu hori betetzeko.

Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusiak adierazi du urte amaieran eraman nahi dutela tasa turistikoetara buruzko araua Batzar Nagusietara. Bizkaian ba al dago araua egiteko eperik?

Bizkaian arin egingo dugu, baina behin jakinda zer egin nahi dugun. Turismo aldetik errealitate oso ezberdinak ditugu Bizkaian. Mundakak, Karrantzak eta Ortuellak ez dute errealitate bera. Kontsentsu bat behar dugu udal mailan. Eudelen hausnarketa egin behar dute foru-arau proiektura zer eraman behar dugun jakiteko, gero batzar nagusiek onar dezaten. Nahiko genuke arin izatea, baina gauzak ganoraz, patxadaz eta kontsentsuz egin behar ditugu. ●